

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 741/2024 Erabakia, abenduaren 17koa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiko karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuen zerrenda aldatzeari

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 74. artikuluan dioenez, administrazio publikoek lanpostu zerrenden bitartez edo antzeko antolaketa tresnak erabiliz egituratu behar dute beren antolamendua.

Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legeak 45.1 artikuluan ezartzen duenez, lanpostu zerrendak euskal administrazio publikoek beren barne egiturak arrazionalizatu eta ordenatzeko baliatzen dituzten tresnak dira, baita langile beharrianak zehaztu, lanpostuetan jarduteko betekizunak definitu eta lanpostu bakoitza sailkatzeko ere, efikaziarekin, efizientziarekin eta antolaketarako arrazionaltasunarekin lotutako irizpideen arabera.

Antolamendu egituren, eskumenen eta lanpostuei esleitutako eginkizunen berezko eboluzioak beharrezko egiten du lanpostu zerrenda era egokian moldatzea eta aldatzea eta, ondorioz, lanpostu bakoitzean jarduteko gaitasunak eta betekizunak ere bai.

Lanpostuak sortzeko ahalmena ematen duen aurrekontu gaitzeari dagokionez, kontuan hartu behar da zer xedatzen duen Arabako Lurralde Historikoko 2023ko aurrekontua gauzatzeko indarreko abenduaren 20ko 23/2022 Foru Arauak, 2024ra luzatu zenak, Langileen Kudeaketari buruzko 24.3 artikuluan:

3. 2023ko ekitaldian, Lanpostuen Zerrenda aldatzeko espedienteak honako kasu hauetan besterik ez dira onetsiko: ez da gastu gehikuntzarik sortu beharko, edo sortuz gero, kasuan kasuko gehikuntza bestelako lanpostuetarako kredituak murriztuz konpentsatu beharko da eta aurretik Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren aldeko txostena beharko da.

Horrenbestez, Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzak lanpostu hauek amortizatzea proposatzen du: 1326.002 eta 1326.004 lanpostuak (Zerbitzu Orokorretako Idazkaritza Teknikoko administrazioa), Zerbitzu Orokorretako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuari atxikiak, eta 1572.001 lanpostua (Mantentzeko ofiziala), Mantentze Zerbitzuari atxikia. Horren helburua da lanpostu hauek sortzea beste horien kontura: 1499.004 eta 1499.005 lanpostuak (Idazkaritza Teknikoko kudeaketa teknikaria), Zerbitzu Orokorretako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuari atxikiak, eta 1363.002 lanpostua (Mantentze eta Kudeaketako ofiziala), Arkitektura Zerbitzuari atxikia.

Horrez gain, hainbat aldaketa ere eskatu dira. Lanpostuen titulazio betekizunei dagokienez, Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzak eskatu du Informatika ingeniarietako titulua betekizuna izatea (goi-mailako ingeniarietza edo gradua + masterra) Informatika Zerbitzuko buruaren lanpostua (1700.001) eskuratzeko. Horrez gain, eskatu du atxikipen administrazioa aldatzea, jada ez baita Arabako Foru Aldundia, Euskal Autonomia Erkidegoa baizik. Titulazio betekizuna aldatzearen ondorioz, lanpostuaren eskala, azpieskala eta mota eguneratu behar dira. Bestalde, Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzak berak eskatu du Antolamendu Zerbitzuko 1292.001 eta 1292.001 lanpostuen (Modernizazio teknikari) atxikipena Informatika Zerbitzura aldatzeko.

Interesdunei entzunaldiko izapidea egin zaie, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 82. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Alegazioen izapidea bete da eta negoziazioa gauzatu da sindikatuetak ordezkariekin, honako arau hauek xedatutakoaren arabera: Enplegu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua eta Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 22ko 19/2024 Dekretua.

Nahitaezko txostenak egin dira, eta, horietan oinarrituta, lehenengo diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiko karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuen zerrenda aldatzeari, ondoren xedatutakoaren arabera:

- I. eranskinean jasotzen diren lanpostuak amortizatzea.
- II. eranskinean jasotzen diren lanpostuak sortzea.
- III. eranskinean jasotzen diren lanpostuak aldatzea.

Bigarrena. Erabaki honek Gobernu Kontseiluak onetsi ondorengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak, ALHAOn argitaratzen den eguna gorabehera.

Hirugarrena. Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo bestela, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organoan; hori guztia, bat etorritik Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1. artikuluan jasotakoarekin eta Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluekin lotuta.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 17a

Diputatu nagusia


RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

*Lehen diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza,
Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Funtzio Publikoko zuzendaria

MARÍA JOSÉ FERNÁNDEZ ALONSO



I. ERANSKINA
LANPOSTUEN ZERRENDA
LANPOSTUAK KENTZEA

KODEA	IZENA	MOTA	DED.ERREG.		BET. ERA.	LANPOSTUAN JARDUTEKO BALDINTZAK						ORDAINSARIAK		LANTOKI HERRIA
			BZT.	EZORD. JARB. JARB.		ESKALA AZPIESKALA	IKASKETA TITULUAK	HIZKUNTZA ESKAKIZUNA	BERARIAZKO ERAGUPENAK	D.O. MAILA	BERARIAZKO OSAGARRIA			
												ADM.	TALDEA	

30 Saila Enplegua, Merkataritza, Turismoa eta Foru Administrazioa

30.3 Zuzendaritza ZERBITZU OROKORRAK


30.1.05 Zerbitzua MANTENTZEA

1572.001	MANTENTZEKO OFIZIALA	EB	B	3	L	A.F.A	C1	213	413	1	200	15	23.066,70	VITORIA-GASTEIZ
							C2	222	416					

30.1.08 Zerbitzua ZERBITZU OROKORRETAKO IDAZKARITZA TEKNIKOA

1326.002	ZERB. OR. IDAZK. TEK. ADMINISTRATIBIA	EB	B		L	A.F.A	C1	12		2		17	21.968,55	VITORIA-GASTEIZ
1326.004	ZERB. OR. IDAZK. TEK. ADMINISTRATIBIA	EB	B		L	A.F.A	C1	12		2		17	21.968,55	VITORIA-GASTEIZ

Lanpostu totala: 3



II. ERANSKINA
LANPOSTU ZERRANDA
SORTZEA

KODEA	IZENA	MOTA	DEDERREG.		BET. ERA.	ATXIKIPENA		LANPOSTUAN JARDUTEKO BALDINTZAK				ORDAINSARIAK		LANTOKI HERRIA
			BZT.	EZORD. JARD.		PREST. JARD.	ADM.	TALDEA	ESKALA AZPIESKALA	IKASKETA TITULUA	HIZKUNITZA ESKAKIZUNA	BEHARRIAZKO EZAGUPENAK	D.O. MAILA	

30 Saila Enplegua, Merkataritza, Turismoa eta Foru Administrazioa

30.3 Zuzendaritza ZERBITZU OROKORRAK

30.3.08 Zerbitzua ZERBITZU OROKORRETAKO IDAZKARITZA TEKNIKOA

1499.004 IDAZK.TEK.KUDEAKETA EB B L A.F.A A1 211 230 3 01/01/2024 35.779,05 VITORIA-GASTEIZ

1499.005 IDAZK.TEK.KUDEAKETA EB B L A.F.A A1 211 230 3 35.779,05 VITORIA-GASTEIZ

30.3.10 Zerbitzua ARKITEKTURA

1363.002 MANTENTZE ETA EB B L A.F.A C1 C2 222 21.888,30 VITORIA-GASTEIZ

Lanpostu totala: 3

Tabla de Literales publicada en el B.O.T.H.A nº 128, de 10 de noviembre de 2021.

PAG- 1



III. ERANSKINA. ALDAKETAK LANPOSTUETAN.

III.1. Aldaketak eskalan, azpieskalan, klasean, eskatutako titulazioan eta administrazioan.

Kodea	Unitatea	Egungo izena	Egungo atxikipen administrazioa	Hemendik aurrerako atxikipen administrazioa	Egungo eskala, azpieskala, klasea	Hemendik aurrerako eskala, azpieskala, klasea	Egun eskatzen den titulazioa	Hemendik aurrera eskatuko den titulazioa
1700.001	Informatika Zerbitzua	Informatika Zerbitzuaren burua	AFA	EAE	1 2	2	--	254

Azalpena:

- Atxikipen administrazioa

AFA Arabako Foru Aldundia
EAE Euskal Autonomia Erkidegoa

Eskala, azpieskala, klasea

1: Administrazio Orokorra
2: Administrazio Berezia

- Titulu akademikoa

254: Informatikako ingeniaria (goi-mailako ingeniari-tza edo gradua + masterra)

III.2. Aldaketak lanpostuen atxikipenetan.

Kodea	Izena	Egungo unitatea	Hemendik aurrerako unitatea
1292.001	Modernizazio teknikaria	Antolaketa Zerbitzua	Informatika Zerbitzua
1292.002	Modernizazio teknikaria	Antolaketa Zerbitzua	Informatika Zerbitzua